

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako lurralde ordezkariak

2019ko laneko jaiegunen egutegia

Ebazpena, 2018ko urriaren 5koa, Lan eta Justizia Saileko Arabako lurralde ordezkariarena, 2019rako Araban tokiko jaiegunak ezartzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 12. artikuluan eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzak, apirilaren 10eko 51/2018 Dekretuaren bidez (2018ko apirilaren 16ko EHAA), honako hau onartu du: 2019. urtean, igandeez gain, hamabi egun baliogabe egotea lan-ondorioetarako.

Hona hemen hamabi egun baliogabe horiek:

Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.

Martxoaren 19a, San Jose eguna.

Apirilaren 18a, Ostegun Santua.

Apirilaren 19a, Ostiral Santua.

Apirilaren 22a, Pazko Astelehena.

Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.

Uztailaren 25a, Santiago Apostolua.

Abuztuaren 15a, Andra Mari eguna.

Urriaren 12a, Espainiako jai nazionala.

Azaroaren 1a, Domu Santu eguna.

Abenduaren 6a, Konstituzio eguna.

Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaria eskuduna da honakoa ezartzeko: lurralde historikorako lanerako bi egun baliogabe, ordainduak eta errekuperatu behar ez direnak, tradizioz tokiko festak izan ohi direnak. Horretarako, dagozkien udaletako osoko bilkurek proposamena egin behar izan dute aurretik. Hori guztia, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 5eko 134/2005 Dekretuaren 2. artikuluan eta apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 15.1.g artikuluan ezarritakoaren arabera. Azken horrek Lan eta Justizia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du.

Udalekin egin beharreko kontsulta egin eta gero, honako hau,

EBAZTEN DUT

Lehena eta bakarra: Arabako lurralde historikoan, 2019rako tokiko eremuko bi jaiegunak, ordainduak eta errekuperatu behar ez direnak, lan-ondorioetarako lan baliogabetzat hartzen direnak, hauexek izango dira:

ARABAKO JAIEGUNA

apirilaren 29a

TOKI MAILAKO JAIEGUNAK

Agurain	ekainaren 25a	
Aiara		
Agiñaga	uztailaren 26a	(Santiago)
Añes	maiatzaren 21a	(San Ramiro)
Arespalditza	maiatzaren 15a	(San Isidro)
Beotegi	irailaren 29a	(Done Mikel)
Erbí	maiatzaren 3a	(Gurutzea)
Etxegoien	maiatzaren 8a	(Antiguako Ama)
Izoria	urtarrilaren 8a	(Done Julian)
Kexaa	abuztuaren 6a	(Elurretako Andra Maria)
Lexartzu	abenduaren 10a	(Sortez Garbiaren eguna)
Luxo	abuztuaren 16a	(Jasokundearen eguna)
Luiando	uztailaren 23a	(Magdalena eguna)
Llantenó	uztailaren 26a	(Santiago)
Madaria	azaroaren 23a	(San Klemente)
Maroño	urtarrilaren 17a	(San Anton)
Menagarai	ekainaren 29a	(Done Petri)
Menoio	apirilaren 25a	(San Marko)
Murga	ekainaren 25a	(Done Joane)
Olabezar	urtarrilaren 24a	(San Babilas)
Opellora	irailaren 29a	(Done Mikel)
Ozeka	urriaren 8a	(Errosarioko Andra Maria)
Retes de Llantenó	uztailaren 23a	(Magdalena eguna)
Salmantón	uztailaren 18a	(Dona Marina)
Soxo	abuztuaren 30	(Done Meteri)
Zuhatza	uztailaren 18a	(Dona Marina)
Alegría-Dulantzi	otsailaren 4a	
Amurrio	abuztuaren 16a	
Añana	uztailaren 10a	(Done Kristobal)
Aramaio	uztailaren 8a	
Armiñón	azaroaren 11a	(Tourseko San Martin)
Arraia-Maeltu	ekainaren 17a	
Arratzua-Ubarrundia	abenduaren 26	(San Esteban)
Artziniega	irailaren 9a	(Arteako Andra Maria)
Asparrena	ekainaren 28a	
Barrundia	ekainaren 24a	(Jon Deuna)
Bastida	azaroan 26a	(Esker Oneko 2. eguna)
Berantevilla	irailaren 9a	
Bernedo	irailaren 9a	
Bilar	abuztuaren 16a	(San Roke)
Burgelu	ekainaren 29a	(Done Petri)
Donemiliaga	azaroaren 12a	(Done Milian)
Elciego	irailaren 9a	
Erribera Beitia	abuztuaren 26	
Erriberagoitia	maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazaria)
Eskuernaga	maiatzaren 15a	(San Torkuato)
Gaubea	maiatzaren 15a	
Harana	maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazaria)

Iekora	abuztuaren 23a	(Berzijanako Andra Maria)
Iruña Oka	abuztuaren 16a	(San Roke)
Iruraiz-Gauna	ekainaren 24a	(Done Joane)
Kanpezu	maiatzaren 15a	(San Isidro)
Kripan	irailaren 6a	(Andra Maria)
Kuartango	ekainaren 24a	
Lagran	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Laguardia	ekainaren 24a	(Done Joane)
Lantziego	irailaren 6a	(Landako Andra Maria)
Lantarón	irailaren 16a	(Done Kornelio eta Done Zipri)
Lapuebla de Labarca	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Laudio	abuztuaren 16a	(San Roke)
Legutio	irailaren 16a	(Kofradiak)
Leza	abuztuaren 16a	(San Roke)
Mañueta	uztailaren 10a	(Done Kristobal)
Moreda Araba	urriaren 22a	(Birjina gazteak)
Navaridas	ekainaren 3a	(Done Joane Ortegakoa)
Okondo	abuztuaren 23a	
Oyón-Oion	urtarrilaren 22a	(Bikendi eta Anastasi Santuak)
Peñacerrada-Urizaharra	maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazaria)
Samaniego	irailaren 9a	(Haranako Andra Maria)
Urkabustaiz	urriaren 8a	(Errosarioko Andra Maria)
Vitoria-Gasteiz	abuztuaren 5a	(Andra Mari Zuria)
Zalduondo	ekainaren 7a	(Hargatiko Eguna)
Zanbrana	abuztuaren 5a	
Zigoitia	abuztuaren 5a	
Zuia	irailaren 30a	

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 5a

Arabako lurralde ordezkaria
ÁLVARO IRADIER ROSA